



Sagarrondoak aldatzeko ezinbestekoa da arau finko batzuk betetzea.

Garai batez geroztik urrituz joan dira sagarrondoak Euskal Herrian. Gaur egun, berriz, sagastiak ugaltzen ari dira Gipuzkoan, eta Diputazioak diruz laguntzen du sagarrondoak landatzeagatik.

Gipuzkoako Diputazioak laguntzak ematen ditu sagastiak bultzatzeko

Gipuzkoan 2.220 sagasti-ustiakuntza ditu zentsatuak bertako Diputazioak. Orokorrean, sagarrondoek 800 hektareako eremua betetzen dute lurralde honetan. Ustiakuntza dexente dago baina ez dira zabalak, batez beste bakoitzak 3.600 metro baititu. Gainera, oso bananduak daude bata bestearekiko.

Luis Butron Diputazioko Landare Arloko koordinatzailearen aburuan, «Gipuzkoa lurralde menditsua izatean nahiz eraikuntzak altxatutako eremuak ugariak» izatean datza sagastiak handiak ez izatearen funtsa.

Orain gutxira arte urrituz joan dira jatorrizko sagarrondoak eta sagardogileek kanpotik ekarri behar izan dute sagardoa egiteko sagarra. Egoera aldatzeko asmoz, bertako sagarrondo osatutako sagastiak diruz laguntzea erabaki zuen Diputazioak 1982. eta 1983. urteetan. Honenbestez, dirulaguntza politika abian jarri zuen urteotan.

Dirulaguntza ematearen helburuak argiak bezain arrazoizkoak dira Butronen hitzetan: «Alde batetik jatorrizko sagarrondoak ugaritzea da. Bestalde, baserri batzuentzat diru iturri bakarra izango liteke ustiaketa mota hau, eta beste batzuentzat osagarri egokia. Honez gain, sagastiak egoera kaskarrean zeuden, behar bezala zaintzen ez zirelako eta landaketa nahiz txertaketa berriak egiten ez zirelako. Gainera, sagarrondoei eskerrak bai ekonomikoki bai ekologikoki hobeto

aprobetxatzen dira baserrietako zenbait eremu».

Sagastiaren jabeak gutxienez sagarrondoaren ehun landare erosi eta landatu behar ditu dirulaguntzak jaso ahal izateko. Landareak, bestalde, Diputa-

zioaren jabeak den Hondarribiko Zubieta Landetxea mindegian erosi behar dira. Landare bakoitzaren prezioa 500 pezetakoa da.

Landareen aldaketa Diputazioak finkatutako arauen arabera egin behar da, izan ere, landatu eta hiru hilabetera Diputazioko teknikari bat joango baita hori hala dela ziurtatzeko. Honen onespina jaso ostean, landareak erosterakoan ordaindutako kopuru bera itzuliko zaio sagastiaren jabeari urtebeteren buruan. Honez gain, beste bi laguntza finkatu ditu Diputazioak: bata landaketa egin eta hiru urtera, eta sei urtera bestea. Hiru urte barru emango lukeen laguntza, sagarrondo bakoitzeko 750 pezetakoa izango litzateke. Butronek azaldu digunez, laguntza hauek iaz jarri ziren martxan.

Landareak behar bezala aldatu eta ondo zaintzeko neurri batzuk zehazten ditu Diputazioak. Sakontasun gutxi duten edo erraz lohitzen diren lurretan ez da sagarrondorik landatuko. Lursaila, bestalde, aitzurto egin behar da, eta landarearen txertoaldea ez da inoiz lurperatuko, lur azaletik 5 zentimetrora geratu behar baitu. Ildo honetan, sagarrondotik sagarrondora tarte bat utzi behar da, baita lerrotik lerroa ere.

Diputazioak sagastien jarraipena egingo du eta egoera onean daudela onartuz gero bai hiru bai sei urterako diru laguntzak eskuratu ahal izango ditu baserriarrak.



Sagarrak biltzen.

Diputazioak finkatutako arauak aintzat hartuta aldatu behar dira sagarrondoak. Hala izaki, landareak erostean ordaindu kopurua itzuliko zaio sagastiaren jabeari urtebeteren buruan.



ELUTXETA



SAGARDOTEGIA BASERRIA

Oztaran bailara - URNIETA - 55.69.81 tel.



Sagardotegia - Zabatzea

MENDIZABAL



OIARBIDE-TXIKI BASERRIA
55.57.47 tel. ASTIGARRAGA (GIPUZKOA)

SIDRAS ZELAIA, S.A.T.

Martindegi auzoa, 29
☎ 55 58 51 - 55 02 81
HERNANI

Txotxeko denboraldia
Otsailaren 2an hasiko dugu



BERECIARTZA

Sagardotegia

Astigarragako Benten bidean.
Tel.: 55 57 98

20014 ASTIGARRAGA

URBITARTE Sagardotegia



Ergoiena auzoa - ATAUN - 88.27.19 tel.